

Beppe Grilloren ezustekoa, mesfidantzak eta aukerak

Sorpresa izan da Italiako azken hauteskundeetan: Beppe Grillo umoregilearen Bost Izarren Mugimenduak (M5S) botoen %25,55 eskuratu du diputatuen ganberan eta herrialdeko politika baldintzatzeko aukera dauka. Emaitzak Europako finantza-mundua urduritu du, baina ezkerretik ere kritikak jaso ditu.

| GORKA BEREZIARTUA MITXELENA |

“HAUTESKUNDE HAUETAN zerbait garbi egotekotan, honakoa da: Beppe Grillok irabazi du. Eta irabazlea bera izan dela esatea eufemismoa da. Hautestontziek altxamendu masiboa adierazi dute eliteen kontra. Lau boto-emaitetik batek gutxienez eman dio bozka umoregile bizardunaren zerrendari, askotan sondeo-institutuetan iragartzeko begiramenik eduki gabe, horiek ere elitearen parte direla ulertuta”. Italiako *La Stampa* egunkarian Massimo Gramellini argitaratutako artikuluak zalan-tza gutxirako tartea utzi zuen: egoera kontrolpean nahi duten elite europarrei beste problema bat sortu zaie Europa hegoaldean.

Fiat enpresaren egunkariko kazetariak ez du uste zigor-botoa bakarrik izan denik: “Esperantza desesperatua dago Bost Izarren Mugimenduko parlamentarioak diferentek izango direla, ez dituztela patrikak beteko, baina batez ere, entzun egingo dutela, besteek jada ez baitzuten egiten”. Antipolitiko etiketa jarri diote han eta hemen. *The Economist*ek titular batetik “pailazo” oihukatu dio. Oro har, finantza munduak begiak ezkeldu ditu Grilloren emaitzarekin. Baina ezkerretik ere agertu dira ahots kritikoak mugimenduarekin. Wu Ming idazle kolektiboak Internazionale.it webgunean zera argitaratu du: “Itxura eta erretorika iraultzailea gorabehera, uste dugu azken urteetan dagoenaren defendatzaile eraginkorra izan dela M5S. ‘Tapoi’ gisa funtzionatu duen indarra, sistema orekatzeko”.



RETRO ONLINE

Wu Ming kolektiboaren ustez Beppe Grillok “tapoi” gisa funtzionatu du.

Italian ez da egon Mediterraneo beste estatu batzuetan bezalako mugimendu herritar indartsurik Wu Mingen ustez, eta horrek bidea erraztu die Beppe Grillo eta Gianroberto Casaleggio enpresarioari Bost Izarren Mugimendua antolatzeko. “Erpin batetik hertsiki kontrolatu eta gidatutako ‘mugimendua’ da, herri mugimenduen aldarrikapenak jaso eta emulatzen dituena, kapitalismo ‘sanoaren’ aldeko apologiekin nahastuz, baita politikari/administratzaile indibidualaren honestitateari buruzko azaleko diskurtsoekin ere. Programa nahasgarria daukate, non aldi berean dauden proposamen liberalek, antiliberalek, zentralistak, federalistak, libertarioak eta ezker muturrekoak”.

Dena den, Grilloren mugimendua bere buruaren preso ez bada, eraldaketarako tresna bihurtzeko aukera ez dute baztertu Wu Mingekoek. Iritzi horri heldu dio Franco Berardi “Bifo” teoriarari marxista-autonomistak ere. ElDiario.es ataritik hartu ditugu haren hitzok: “Grilloren alderdiak diktadura finantzarioaren gobernu galarazi du. Orain jendartea mugitzeko txanda da. Jendarteak izango al du energia eta inteligentzia aski, bizi-modu soziala auto-kudeatzeko okupazio orokorreko mugimenduarekin? Energia hori ez baldin badaukagu, datorren desastrea merezi dugu”. Italiar testuingurutik aterata ere, zer pentsatua ematen du. ■

